

Astigarragako **Herri** **Programa**

2023ko udal hauteskundeak

ehbildu

Aurkibidea

1. Bi hitz herri programaz
2. Ekipamenduak, zerbitzu publikoak
 - 2.1. Anbulatorioa
 - 2.2. Adineko pertsonentzako zerbitzuak
 - 2.3. Kultur Etxe zaharra, gazteen elkargune
 - 2.4. Kiroldegia
3. Energia, irisgarritasuna eta espazio publikoak
 - 3.1. Energia: baratze fotovoltaikoa, bulegoa eta komunitate energetikoak
 - 3.2. Irisgarritasuna hobetzeko urratsak
 - 3.3. Mugikortasun jasangarrian sakontzea
 - 3.4. Ergobia hiritartzea
 - 3.5. Ibai-parkea zabaltzea
4. Bidean datozen proiektuak eta gaiak
 - 4.1. Hezkuntza azpiegiturak: Herri Eskola eta DBH
 - 4.2. Hiritartze lanak
 - 4.3. Udal instalazioak
 - 4.4. Udal zerbitzuak
 - 4.5. Jolastokiak
 - 4.6. Udal kudeaketa
5. Plan orokorra, Astigarraga 15 urtera begira
 - 5.1. Ekipamendu publikoak
 - 5.2. Etxebizitza politika
 - 5.3. Landa eremua
6. Arloz arlo, hainbat zerbitzu indartu
 - 6.1. Euskararen normalizazioa
 - 6.2. Genero berdintasuna
 - 6.3. Gizarte babesa
 - 6.4. Kirola eta jarduera fisikoa
 - 6.5. Herri hezitzailea
 - 6.6. Elkarteak
 - 6.7. Baserritarren mahaia
7. Elkarlanean

1. BI HITZ HERRI PROGRAMAZ

Herri programa honetan duzu hurrengo lau urteotarako Astigarragako EH Bilduren proposamena. Programa hau osatzeko, martxo eta apirilean zehar herriko eragileekin elkartu ginen, apirilean programa lantzeko tailer ireki bat egin genuen eta hori guztia azken lau urteotan udal gobenuan egindako lanaren esperientzia eta ezagutzarekin uztartu dugu.

Bigarren atalean, gure erronka nagusiak datoz: anbulatorio berria, kiroldegia, adineko pertsonentzako ekipamendua, Kultur Etxe zaharra gazteentzat... Hirugarren atalean, beste egitasmo sorta bat duzu, energiarekin eta irisgarritasunarekin lotura dutenak.

Laugarren atalean laburbildu ditugu martxan egonik ere hurrengo agintaldian amaitu edota aurreratuko ditugun gai eta egitasmoak. Bosgarrenean, martxan dagoen plan orokorra berrikusteko prozesuari buruzko gure proposamen nagusiak datoz.

Seigarren atalean berriz, arloz-arlo eskuartean ditugun proposamen esanguratsuenak. Amaitzeko, zazpigarrenean, hori guztia nola egingo dugun azalduko dizugu. Zurekin, zuekin egingo dugulako, astigartarrokin.



2. EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

2.1. ANBULATORIO BERRIA

Osakidetzari duela 3 urte Urumea Berrin eraikitako azken etxe sailaren beheko planta eskaini genion (ia 765 m²-koa), ambulatorio berria egiteko. Atzera eta aurrera erantzun garbirik eman gabe ibili eta gero, duela gutxi adierazi digute azalera hori ez dela nahikoa eta 1000 m² behar direla eta orubea izan behar duela ahal dela.

Gaia aztertzen aritu gara eta proposamen zehatz bat daukagu: Bidebitarteko kantxen aurrealdean eraikitzea bi solairuko eraikina. Herriaren erdigunean dago, irisgarria da, orube soila da. Bi solairutan eginda kantxak atzeratuta molda daiteke.

Espazio berri honek kontsulta gehiago jartzeko aukera emango du, besteak beste: 6 familia mediku, 2 pediatra, 6 erizain (2 pediatriakoak) eta emakumeen arreta kontsulta.

Horretarako, udalak Osakidetzari orubea laga behar dio eta Jaurlaritzak eraikina egin. Udal Gobernuak lortzen badugu berehala hasiko gara egin behar diren tramite urbanistikoak egiten hori bideratzeko.




2.2. ADINEKO PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

Astigarragan 65 urtetik gorako pertsonak 1000tik gora dira. Zahartzaro aktibo eta osasuntsuaren aldeko apustua egiten dugu eta horretarako adineko pertsonentzako zerbitzuek ekipamendu zabal eta egokiak behar dituzte.

Proposatzen dugu Urumea Berriko azken eraikineko beheko solairua (765 m²) izatea adineko pertsonen elkargune nagusia eta bertan kokatzea eguneko zentroa, Galtzaurren egoitza, jardueretarako espazioak... Gainera, lokal horrek inguru paregabea du, ibai parkea, zabalgune handi bat... proiektu horretan taberna bat ere planteatu daiteke, terraza eta guzti... Aukera handiak dituen lokala eta eremua da.

Prozesu hori adineko pertsonekin eta elkarteekin egingo dugu, Emakumeon Etxearen edota Haurreskolaren kasuan egin dugun bezala.



2.3. KULTUR ETXE ZAHARRA, GAZTEEN ELKARGUNE

Egun Astigarragan 14-25 urte bitarteko 840 nerabe/gazte ditugu, baina 4 urte barru 985 izango dira eta 8 urte barru 1.138. Adin tarte honek herrian duen ekipamendu eta espazioen gabezia agerikoa da.

Horretarako, herriko nerabe eta gazteekin parte-hartze prozesu bat abiaraziko dugu Kultur Etxe zaharraren espazioaren diseinua eta kudeaketari buruz hausnartzeko. EH Bilduren ustez, Kultur Etxe zaharra espazio ezin hobe da nerabe eta gazteen elkargunea izateko (tailer-eremuak, kontzertu-aretoa, batzar-gelak...).

Bestetik, gazteen sormen musikala bideratzeko, pilotalekuaren sotoan musika taldeentzako bi entsegu-gela egokituko ditugu.



2.4. KIROLDEGIA

ESPAZIO BERRIAK, ESKAINTZA ZABALAGOA ETA IRISGARRIA

Herritar eta erabiltzaileekin parte-hartze prozesua gauzatuta, kiroldegia handitzeko proiektua idatzi da.

Proiektuak bi fase ditu: 1. fasea (5.618.753,64€): sarrera lekuz aldatu eta irisgarri egin, kirol pista berria eraiki, fitness aretoa handitu, aldagelak gehitu eta rokodromo/boulderra egin. 2. fasea (7.308.236,30€): igerileku estalia egin, dagozkion aldagela propioekin.

Proiektuaren eta zerbitzuen antolamendua kontuan hartuta, 1. fasea amaitzea beharrezkoa da 2. fasea egin aurretik.

Horregatik, proiektuaren tamaina eta aurrekontua ezagututa, EH Bilduk kiroldegiaren 1. fasea gauzatuko du. Bigarren fasearekin, igerileku estaliarekin, zalantzak ditugu, izan ere, ederra litzateke igerileku estali bat edukitzea, baina inbertsioa eta mantentzeko kostuak oso altuak dira eta herriak behar asko ditu. Ondorioz, erabaki hori herritarren esku jarriko dugu.



3. ENERGIA, IRISGARritASUNA ETA ESPAZIO PUBLIKOAK

3.1. Baratze fotovoltaikoa, energia bulegoa eta komunitate energetikoak. Autopistaren eraikuntzak utzitako betelanean (garraio hiriaren kamioi aparkalekuaren parean), 1.315MWh energia berriztagarri sortzeko baratze fotovoltaikoa eraikiko dugu (Astigarragako etxeen %15aren kontsumo elektrikoa hornitzeko adina). Trantsizio energetikoari egoki erantzuteko, energiaren udal bulegoa sortuko dugu, arlo honetako ekimenak kudeatzeko. Bulego horren egitekoa izango da, besteak beste, komunitate energetikoak sustatzea.



3.2. Irisgarritasuna hobetzeko urratsak. Apeztegin igogailua eraikiko dugu Udaletxeko plazara modu irisgarrian igo ahal izateko. Gainera, gure herriko kale eta ekipamenduen irisgarritasuna hobetzeko parte-hartze prozesu bat abiaraziko dugu herriaren diagnosi osatuagoa lortzeko eta hurrengo urratsak zehazten joateko.



3.3. Mugikortasun jasangarrian sakontzea. Donostiako bizikleta sistemarekin (dBizi) osagarria izango den bizikleta elektrikoen sistema jarriko dugu abian. Bestetik, DBHko ikastetxe berrira joateko bidegorria eraikiko dugu eta Txalakako bidegorriari ibilbide alternatibo egokiago emango diogu.

3.4. Ergobia hiritartzea. Ergobiaren sarrera hiritartuko dugu, zubitik Pagoagaraino (biribilgunea). Pagoagako lokala egokituko dugu auzotarrentzat, besteak beste, auzoko kultur eta aisialdi eskaintza hobetzeko. Uholdeen aurkako lanen ondoren, aisialdirako ibai parkea handituko dugu, Portutxon eta Ergobian (Hernani aldera).



3.5. Ibai-parkea zabaltzea. Uholdeen aurkako lanak gauzatuz, ibai parkea zabalduko dugu aisialdirako espazioak gehituz eta ariketa fisikoa egin ahal izateko ibilbide berriak irekiaz. Urumeari jarraituz, Portutxo eta Ergobia lotuko dituen ibilbide berdea gauzatuko dugu.



4. BIDEAN DATOZEN PROIEKTUAK ETA GAIAK

Ondoren dituzu neurri batean edo bestean landuta dauden gaiak eta proiektuak, datorren agintaldian amaitu edota aurreratu behar direnak. Gaiarekin batera duzu azalpen labur bat eta aurreikusten dugun epea.

4.1. Hezkuntzako azpiegiturak

Herri Eskola handitzeko lanak

Proiektua Hezkuntza Sailari 2021eko abenduan entregatu zion Udalak. Obrak 2023ko uztailan hasiko dira eta 2024ko abenduan amaitzea aurreikusi du Jaurlaritzak.

DBHko ikastetxea

Ikastetxea eraikitzeko lurra Udalak Jaurlaritzari 2021eko uztailan laga zion. Une honetan Jaurlaritza proiektua idazteko lanak egiten ari da. Ondoren, obrak egiteko lehiaketa egin behar du eta, jarraian obrak egin. Aurreikuspenak egitea zaila izanik ere, ikastetxea amaituta egon daiteke 2027an.

4.2. Hiritartze lanak

Santiagomendiko auzoko II. fasea

Santiagomendiko auzunea hiritartzeko proiektuaren II. fasea idatzita dago (Plazetxe-Martziñe). Obrak egiteko lehiaketa egin eta gauzatu egin behar da. Aurreikusitako epea 2024-25.

Anuska auzoko hiritartze lanak

Hiritartze lanen proiektua idazteko kontratua esleituta dauka Udalak. Proiektua idatzi, obrak egiteko lehiaketa egin eta obrak egin behar dira. Aurreikusitako epea 2025-26

Sagardotegi zeharra, saneamendua

Proiektua idatzita dago eta egin beharreko hitzarmenak 2023an egingo dira. Lehen faseko obrak 2023-24an egingo dira eta bigarren fasekoak aurrerago, aurrekontuaren arabera.

Arrobitxulo auzoko oinezkoen eremua eta segurtasuna

Proiektua eta proposamena idatzita dago. Hurrengo urratsa da auzotarrekin partekatzea eta adostea, obren lehiaketa egitea eta obra gauzatzea. Aurreikusitako epea 2023-24.

4.3. Udal instalazioak

Brigadaren lokala

Brigadaren lokala egokitzeko proiektua onartuta dago eta lehiaketa martxan. Obrak egitea eta lekualdatzeak egitea falta da.

Aurreikusitako epea 2023-24. Brigadaren lokal berria egokitu eta lekuz aldatzea ezinbestekoa da kiroldegia handitzeko eta egokitzeko.

Udal Bulegoak

Nabarra Oñatz kalean udalak lokalak eskuratu ditu (Banco Popular zegoen lokala) hainbat udal zerbitzu bertan kokatzeko, hain zuzen ere Gizarte Zerbitzuak, Tokiko Garapeneko Zerbitzua eta Berdintasun eta Partaidetza Zerbitzua.

Lokala egokitzeko proiektua idatzi eta obrak egin behar dira. Aurreikusitako epea 2024-25.

Udaletxea

Udaletxeko efizientzia energetikoa eta isolamendu termikoa hobetzeko, fatxadan hainbat lan egingo dira.

Proiektua eginda dago eta lanak esleitu eta egitea falta da. Aurreikusitako epea 2023-24.

Haurreskola zaharrak

Haurreskola zaharraren lokalak Herri Eskolari utzi behar izan zaizkio, Hezkuntza Saila Herri Eskola handitzeko lanekin atzerapen handiarekin ibili delako.

Hori dela eta, lokal horiek Eskolari lagako zaizkio 2024ko abendura arte.

Ondoren, AEKren euskaltegiarentzat eta udal zerbitzuentzat erabiliko dira.

Udaltzaingoa

Oposizio fasea bukatu eta 8 agenteko talde egonkorra lortuta, udaltzaingoaren bulegoak Kale Nagusia 24an (Norberto Almandoz plazaren ondoan) udalak eskuratuko duen lokalera mugiaraztea aurreikusten da.

4.4. Udal zerbitzuak

Argiteria led teknologiara, industrialdeak

Azken lau urteetan lortu dugu herriguneko kaleko argiteria ia osoa led teknologiara pasatzea. Hurrengo agintaldiko erronka industrialdeetako argiteria aldatzea da.

Kaleko garbiketa eta lorezaintza

Aurreko lau urteen bidetik, kaleko garbiketa eta lorezaintza lanak doitzen eta hobetzen joango gara.

Hondakinen kudeaketa

Zero waste ziurtagirian hirugarren izarra lortzeko helburua dugu, bereziki auzo konposta eta autokonposta sustatuz eta hondakin organikoaren bilketa indartu eta hobetuz.

4.5. Jolastokiak

Ibai parkea

Ibai parkeko jolastokiaren proiektua idatzita dago eta gauzatzeko lehiaketa martxan dago. 2023an amaituta egotea aurreikusten dugu. Jolastoki honen eta hurrengo definizioa haur eta gaztetxoekin 2020-21ean egin genuen partehartze prozesuan landu zen.

Sagardo plazako jolastokia

Sagardo plazako jolastokiaren proiektua idatzita dago eta gauzatzeko lehiaketa martxan dago. 2023an amaituta egotea aurreikusten dugu.

Murgia auzoko jolastokia

Murgia auzoko jolastokiaren lanak martxan daude eta 2023an amaituta egotea aurreikusten dugu.

Perurenako jolastokia eta aparkalekua

Perurenako jolastokia eta aparkalekua egokitzeko proiektua idatzita dago eta aurreikusten dugu 2024an gauzatzea.

Txakur parkeak

Ibai-parkean txakur parke handi bat egokitzeaz gain, Arrobitxuloko txakur parkea berreskuratuko da. Txakur parke hau txakurrek eta haurrek elkarrekin partekatu ahalko dute. Izaskun kalearen atzealdean beste txakur parke bat zabaltzea ere aztertuko da.

4.5. Udal kudeaketa

Zerbitzuen antolamenduaren azterketa eta berrantolaketa

Astigarragako Udala txikia izatetik tamaina ertaineko udala izatera igaro da eta epe laburrean 50 langile inguru izango ditu. Arlo eta zerbitzuen azterketa eta berrantolaketa ezinbestekoa da gaur egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko. Lanketa horrekin hasiak gara dagoeneko, eta jarraitzea aurreikusten dugu.

Giza baliabideen kudeaketa

Hutsik dauden lanpostuak betetzeko ahaleginean eta ordezkapenak eta hutsuneak arin osatzeko lan-poltsak kudeatzen jarraituko dugu agintaldi osoan zehar. 2019-23 legegadian 6 lanpostu berri sortu eta 14 hautaketa prozesu egin ditugu (plazak betetzeko, ordezkapenak egiteko..).

Kudeaketa ekonomikoa

Abiapuntu onean dago Astigarragako Udala kudeaketa ekonomikoari dagokionez. Urte zailak izanik ere eta inbertsio handiak egin arren, lortu dugu zorrik ez izatea eta gastu/sarreraren oreka egokia izatea. Hala ere, herriak eta udalak hazkunde handia izan dutenez, beharrezkoa da epe erdi eta luzera kudeaketa ekonomiko jasangarri bat ziurtatzeko neurriak hartzea. Horretarako beharrezko azterketak egingo ditugu 2023-24an.

5. PLAN OROKORRA, ASTIGARRAGA 15 URTERA BEGIRA

Plan Orokorra berrikusteko prozesuan murgilduta gaude, Astigarraga hurrengo 15 urteetan zer eta nola garatuko den finkatzeko ariketa kolektiboa egiten. Ondoren duzu gure jarrera ekipamendu publikoei, etxebizitzari eta landa eremuari buruz.

5.1. Ekipamendu publikoak

2010en onartu eta indarrean eduki dugun Plan Orokorrak gabezia nagusi hori izan du: ekipamendu publikoen aurreikuspenik eta plangintzarik ez egitea. Horren ondorioak azken urteetan jasan ditugu, ekipamendu publiko gehienak txiki geratu zaizkigulako. Hurrengo Plan Orokorrak ekipamendu publikoetarako orube eta eremuen plangintza egoki bat eduki behar du, herrigunean nahiz auzoetan. Hala nola, anbulatorio berria, adinekoen erresidentzia, auzo-biltokiak, kirol-ekipamendu berriak, udaletxearen handitzea, aparkaleku publikoak... aurreikusiko ditu.

5.2. Etxebizitza politika

Gure proposamena da etxebizitzaren hazkundera nabarmen murriztea eta soilik %10 handitzea. Hau da, 350 etxebizitza aurreikustea (aurreko planean 1.534 aurreikusi ziren) eta horien %50 babestuak izatea.

Era berean, gure apustua da lur publikoan alokairu sozialerako etxebizitzaren promozio publikoak sustatzea Ergobian, mojen komentuan, Mendiaun-Anibarren... (50 etxebizitza gutxienez). Horretarako, lehen harremanak eginak ditugu Visesarekin.

5.3. Landa eremuaren babesa

Landa eremuari dagokionez, gure proposamena landa eremua eta nekazaritza/abeltzaintza lurak babestea da. Egun dugun landa-paisaiari eutsi nahi diogu.

Gainera gure bertako basoak babesteko neurriak proposatuko ditugu, batik bat Landarbaso eremuan eta bereziki Markesbaso edo Murgibason. Aiako Parke Naturalaren babes-eremua Astigarragara zabaltzea aztertuko dugu.

6. ARLOZ ARLO, HAINBAT ZERBITZU INDARTU

Arloz arloko laburpen bat duzu segidan, hurrengo lau urteotarako gure apustu esanguratsuenekin.

6.1. Euskararen normalizazioa

Euskara teknikariaren lanpostu berria lehiaketara aterako dugu. Horrez gain, euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa 2023an osatuko dugu eta 2024an gauzatzen hasiko gara.

2022an Astigarraga UEMako kide egin zen. Ondorioz, 2023tik aurrera mankomunitateak eskaintzen eta garatzen dituen zerbitzu eta proiektuean parte hartzen hasiko gara.

6.2. Genero berdintasuna

Herriko elkarte eta emakumeekin batera, IV. berdintasun plana garatuko dugu 2023-24 urte bitartean.

Parte-hartze prozesu batetik abiatuta Emakumeon Etxea sortu ondoren, lankidetzaz indartzen jarraituko dugu.

6.3. Gizarte babesa indartu

Gizarte zerbitzuen karta berregituratu, honen berri herritarrei eman eta giza baliabideak egonkortuko ditugu. Gainera, etxez etxeko zerbitzua indartzen jarraituko dugu.

Hobari sistema eta dirulaguntzak indartzen jarraituko dugu. Prezioen igoerak eragin duen pobretze orokorrari aurre egiteko proposamenak mahaiganeratuko ditugu.

Kontxa Etxeberria foroan bildutako eragileekin adin txikiko eta nerabeen babes sistemaren balorazioa eta hobetzea sustatuko dugu.

6.4 Kirola eta jarduera fisikoa

Herrian dugun kirol eskaintza zabala bermatzen jarraituko dugu eta etor daitezkeen berriei leku egingo diegu Mundarro Kirol Elkartearen lankidetzarekin.

Eskola kirola denen eskura egoteko eta kirol aukera desberdinak praktikatzeko, lantaldean arituko gara.

Adinekoek jarduera fisikoa egin dezaten dinamika berriak sortuko ditugu.

Herriko eragileekin batera, kirol ekitaldien antolaketa bultzatuko dugu.

6.5. Herri hezitzailea

Udal politiketan ikuspegi hezitzailea txertatuko dugu, Herri Eskolarekin elkarlanean.

DBHaren ikastetxea gero eta gertuago dugunez, hezkuntzaren ziklo osoak (Haurreskola, Herri Eskola, DBH) barnebilduko dituen hezkuntza-plana osatuko dugu.

Haur eta nerabeen parte hartzea indartzeko gune berriak sortu eta dinamizatuko ditugu, kultur eskaintzan ere ahaleginak gehituz.

6.6. Elkarteak

Elkarteekin gertuko harreman izan eta lankidetzan jardungo dugu eta herriko programazioa koordinatzeko bide berriak zehaztuko ditugu. Herritar eta eragile aktiboak izango dituen Astigarraga izateko hausnarketa prozesua aktibatuko dugu, batik bat kultura programazioaren dinamizazioari begira.

Dirulaguntza izendunak indartuko ditugu elkarteen lana bermatu ahal izateko.

6.7. Baserritarren mahaia

Duela lau urte abiarazi genuen Baserritarren Mahaiaren lankidetzarekin, baserritarren aldeko ekimenak sustatzen jarraituko dugu: baserritarrentzat dirulaguntza bereziak, argiteria indartzea baserri atarietan, herri bideen mantenu eta konpontzea, baserritarren belaunaldi-erleleboa bermatzeko programak, bertako produktuen merkaturatzea erraztea...

7. ELKARLANEAN

Aurreko orrialdeetan jarritakoa astigartarrokin egingo dugu, zurekin, zuekin. Ezin du bestela izan.

Parte hartze prozesuak egingo ditugu, nagusiki bi: adineko pertsonentzako zerbitzuak eskaintzeko espazioari buruzkoa eta kultur etxe zaharra gazteentzako espazioa izateko prozesua. Herritar eta eragile guztiek parte hartzea nahi dugu, baina bereziki gazteek eta adinekoek.

Gurekin harremanetan jartzeko bideak zabal-zabalik edukiko dituzu. Udal jardunaren berri etengabe emango dugu udalak dituen euskarrien bidez edota sare sozialen bidez. Baina horrez gain, zuregana joango gara, zure auzora edo elkartera, elkarlanean aritzeko. Eta zu ere, etorri guregabna, beldurrik gabe.

Aurrekontu partehartzaileen prozesuak egingo ditugu urtero eta aurrekontuak lantzeko unean auzoz auzo joango gara, zure iritzi eta ekarpenak jasotzeko.

1. Xabier Urdangarin Lasa
2. Ainara Vazquez Martinez
3. Naroa Del Orden Otero
4. Joseba Ilari Etxeberria Calvo
5. Aitor Guesmes Olabide
6. Andoni Gartzia Anzuabarena

7. Eati Neira Martinez
8. Bea Losagabaster Izagirre
9. Anartz Fernandez Duo
10. Sara Majarinas Ibarreta
11. Asier Zabaleta Izagirre
12. Marta Mendizabal Ramirez

13. Unai Uzeaga Otaño
14. Aintzane Borandiaran Ezponda
15. Juantxo Zuaznabar Santa Cruz
16. Roxali Fernandez Rodriguez
17. Ione Olatziregi Mendioratz

ehbildu

Maite duzun Astigarraga

Mejorar para avanzar

EGINGO DUGU.

ehbildu

Maite duzun Astigarraga

EGINGO
DUGU.

Abante!



ehbildu

Maite duzun Astigarraga

**EGINGO
DUGU.**

ehbildu

2023ko udal hauteskundeak